




FUNDAZIOA

Zitagolak

Harkaitz Cano



LETRAK
&
FUTBOLA
LETRAS & FÚTBOL

Harkaitz Cano

ZITAGOLAK



FUNDAZIOA

LETRAK & FUTBOLA

2014

© Testuena: Harkaitz Cano, 2014

© Argitaraldi honena: Athletic Club Fundazioa, 2014

Bildumaren diseinua: Moriwase

Maketazioa: Lobotipo

Inprimaketa: Ingugom

Lehen edizioa, 2014ko Maiatza

Lege-gordailua: BI-759-2014

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke.

Mila bider ikusi dugu: jokalaria sa-
rera bota du baloia, bera izan da
eta ez beste inor golegile, dudarik
gera ez dadin bularra kolpatzen du, *nik-beste-
inork-ez*, hatz lodiaz zulatzen du behin eta
berriro lepopea, edo paparra esku ahur zapalaz
ponpatzen, autoafirmatiboki; ihes egiten die
bera besarkatzera ziztuan datozkion taldeki-
deei, traba dira lagunak indibidualitatearen
leher-keta den amorrutzko jauzi hori egiterako
orduan. Grabitateari uko egiten dion gazte
eternal sentitu, eta jauziaren unerik gorenean
ospatzen du gola. Labankada ematen dio ai-
reari. Ispilukeria bat da, ala kideak korrika

atzetik datozkionean, ihesi doa bera? Ez du zoriondua izan nahi, akaso? Besarkagai baino areago, ehiza-zakurren aurreko erbi sentitzen da, harrapakin. Izatez, hura zoriontzera datozen taldekideen besarkadetatik eskapu zenbat denbora pasatzen duen arabera neur liteke agian futbolariaren egoa. Esker onik nahi ote duen ala ez. Prentsaurrekoetako hitz maiztuetatik haratago («hamaika hamaikaren kontrako jokoa da futbola, ez naiz ezer nire taldekiderik gabe»), haren kolektibitatearekiko zinezko estimazioa eta talde-jokoaren ikuspegia zein den zintzoki jakin dezakegu lepotik harrapatua izan bitarteko tartearen arabera. Zenbateraino den besarkabera edo besarkagaitz. Loria konpartitzeko prest ote dagoen ala dena nahi ote duen beretzat, poza eta erramua. Une batez, taldekideak boikotera datozkiola pentsatzen du, beharbada. Pentsatzen du momentu horretan darion garaitzaren distira eta golaren

meritua beren gain hartu nahi dutela bere taldekide izan arren bat-batean kontrako taldeko errugbi jokalaria bihurtu zaizkion horiek. Itzala egin nahi diotela. Zurrupatu egin nahi diotela aura edo berea den gola banpirizatu. Izar bakartia izan nahi luke, nonbait. Ospakizunean, kornererraino heldu eta belaunikatu egingo da akaso, baina ez aldare baten aurrean dagoena legez, ez apaltasunez, zezenko masturbatzailearen moduan baizik; bere publikoari eskaini nahiko dio hazia ere baden gola edo bere aurkarien zalego izoztuari haize bolada jeltuaren metafora eta mespretxua igorri, testosteronaz blaitutako orroa. Mespretxu horren zenbatekoak —mespretxurik ezak— neurtzen du futbolariaren dotorezia. O, bai, ohituta gaude ikustera: arrastaka belarretan nola irristatzen diren, berdegunea zapala barik elurrezko malda bat balitz bezala, eta golegilea plastiko batean mendian behera abaila bizian

labaintzen den haurra. Mila bider ikusi dugu: sehaska baten keinua nola egiten duen futbolariak besoak bildu eta leun-leun balantzatzuz, haur jaioberriari eskaintzeko gola —saihestezina zaio ikusleari halakoetan emazte gajoengan pentsatzea—, aurrelariak ere badaki samur jokatzeko, aurrelariak ere badu bihotzik.

Berriki, maitasun adierazpenak ikusi izan dira: bi eskuekin hatzak elkartuz bihotz bat irudikatu izan du batek baino gehiagok, eta ikusleak halakoetan, durduzatatuta, bihotz deforme hura feministen aldarriarekin nahastu izan du sarri. Mimika imperfektuaren gauzak. Kontuak kontu, hortxe ateratzen dira gabezia guztiak, ospakizunean eta euforian, hortxe azaleratzen dira suminak, publiko txistukaria edo entrenatzailea hatz erakuslearekin destainaz seinalatzen dutenean gola sartu berri duten aurrelari mendekatiek: «zuek, pazientziarik gabeko publiko mizkina, zer uste

zenuten, ahaztua nuela gol bat sartzea zer den»; «aulkian eduki nauk maizter *mister*, eta oker hengoen, ikusten?».

Mila bider ikusi dugu, bai horixe: brasil-darrak ikusi ditugu, *coisa mais linda*, pelbisa astintzen, espainiarrak ikusi ditugu, *olé y olé*, *Miura* ikusezinak toreatzen, kamerundarrak lurrari lotuta, *denbele danbala*, dantzaren bidez golaren festa ospatzen. Nork bere idio-sinkrasia eta jaia. Nork bere ospakizuna, nork bere adrenalina jariatu eta kudeatzeko modua. Hor dago ospatzen ez duen futbolari estoikoa ere; aurrez bere taldea izan zenari gola sartu diolako ospatzen ez duena, alegia, iragane-ko koloreekiko errespetua gordetzen duela adierazteko, esker ona, memoria historikoa, sentiberatasuna... horiek denak ere kontuan hartu behar lituzkeelako jokalaria batek. Ez ospatzeko —edo ospakizun azkar, *precox* eta *interruptus* bat egiteko— beste arrazoi bat ere

bada, jakina, zeina den denbora gutxi falta izatea partida amaitzeko eta emaitza kontra edukitzea: baloia beretzat hartu eta zelaiaren erdira korrika joango da orduan aurrelaria —errugbia berriro— entsegu bat egin nahi balu legez, espermatozoide berarekin beste ate bat ernaltzeko. Ez baita gauza bera garaipenaren gola sartzea, berdinketarena, edo beste hiru golen aldea moztea eskatzen duena, loria urrun sentitzea oraindik.

Mila bider ikusi ez badugu, ez dugu sekula ikusi. Herioz eta errabiaz kamisetak nola eranzten dituzten Tarzan garaikide horiek, bizeps izerdituak eta pektoral puztuak, abdominal landuak, tatuatutako dragoiak eta japoniar ideogramak agerian utzita; lepotik behera zuri-zuri zenbaitetan, *moreno-agroman* beltzarantze gaur egun ia samurtasuna eragiteraino *chic* den hori ere milaka —zer diogu milaka, milioika!— pertsonaren bistara jarritz.

Full monty primitibo eta kontsumatu gabe bat. Egungo kirol-jantziak hain sendoak ez balira, agian tarratatu ere tarratatuko lituzkete denon aurrean, Hulk berdearen gisan, hain baita handia giza animalia, giza otsoa, gizaki izateari utzi dion *homo celebratio* horren euforia... Alferrik aritu gara gure geneak zizelkatzen, nekez brida daiteke gerlariaren atabismoa, gizonki lan egiten duen barne indar hori.

Azken urteotan, taldearen elastikoaren pean kotoi zurizko bigarren azal horietan argazkiak estanpatzea jarri da boladan. Jaioberriari edo hildako lagunari egindako omenaldi xume edo keinu hunkigarriak, minbizia duen jokarlariaren karnet-itxurako argazki handituak —*foto-matoi* esatea sarkastikoegi litzateke hemen—. Hamaika bider ikusi ditugu horiek denak, kirolaren etika eta etiketa hausteagatik futbolariei inposatzen zaizkien isunak isun, eta hunkigarria ere suertatzen da pentsatzea

azalera —estadiora, telebistara, mundura— agertzen den azpiko kamisetako argazki edo mezu bakoitzeko zenbat eta zenbat geratzen ote diren ezkutuan. Erakutsi, azaldu, omen-du eta aldarrikatu ezinik. Zenbat frustrazio, zenbat kamiseta estanpatu beloa kentzeko zain eta golaren esperoan. Eta gol hori iristen ez. Futbola gogorra ez dela esan dezaten gero.

Izan ere, ez baitira denak argazkiak: mezuak ere hor daude. Hitzak. Futbolariaren berbaroa. Omendu nahi zirenen izen-deiturak izaten ziren hasieran. Edo eslogan halabeharrez laburrak, estadioetan mosaikoak osatzeko adina balio zutenak kamiseta azpirako: «*Força Tito*» edo «*Muriel te amo*». Esaldi horiek edo beste antzeko asko agerian utzi eta futbolariak kamisetaz estaltzen du burua, Mexikoko lutxalibre borrokalariaren traza hartuz une batez («*¡atrévase a peliar con este Blue Demmon, pendejos!*»). Bizitzaren noraezaren metafora behinena, aizue:

hegazkinarena eginez doa itsumustuan futbolaria aurpegia tapatuta, sadomasorako ehizakia —«Zigor nazan latigo horrekin!»— edo bere buruaren borreroa balitz bezala, piloturik gabe ko giza aireplano bilakaturik. Oi, futbola! Oi, artea! Oi, handitasuna! Zenbat txinparta eta zenbat metafora segundo gutxiko big-bang horren baitan!

«Força Tito». «Muriel te amo». «¡Atrévase a peliar con este Blue Demmon, pendejos!»

Zerbait handiagoren hastapena senti zitekeen. Garatzen joan baitzen apurka-apurka mezuen kontu hori ere. Sofistikazio gradua gero eta handiagoa bihurtzen denboraren poderioz.

2014ko Brasilgo Mundialetako lehen fasean Lionel Messik ireki zuen aro berria, Iranen kontrako partiduan Argentinako selekzioari garaipena eman zion gola sartu eta kamiseta pean ezkutatzen zituen hitzak

erakutsi zituenean Belo Horizonteko Mineirao estadioan, artista guztiek bezala, koska bat estuago beti. Zer zioen haren elastikoaren peko mezuak? «*Soy un cronopio*». ¡*Soy un cronopio!* Kronopio bat zela aldarrikatzen zuen Barçako jokalaria. «*Abiertamente cronopio, ¡Messi salió del clóset!*» titulatu zuen hurrengo egunean Buenos Airesko *Clarín* egunkariak. Jendea harri eta belarri geratu zen. Malkotan San Telmo auzoko kafe-etxeetako tertulietan literaturazaleak kamisetako aitorpenaren aurrean ahozko doktorego tesiak inprobisatzen... Messi vs. Maradona erlijioen arteko gatazka gainditutzat jo zen derrepente. Beste bat zen orain gaia. Denak mintzo ziren orain *futbolite* izendatutako *crossover* berriaz. Ez zen beste gairik izan prentsasurekoan. Messik garbi utzi zuen, Julio Cortázarren jaiotzaren eta heriotzaren urteurrena zela eta (1914-1984), omenaldia egin nahi izan ziola xx. mendeko ipuingi-

le handiari. Esan beharrik ere ez dago, Julio Cortázarren liburuen salmenta erruz igo zela une hartatik aurrera. Gogoratzen den lehen *gol ospakizun literarioa* izan zen Messirena, aro bati hasiera eman ziona. Ordu gutxigatik, ordea, egun bat geroago eta mundial berberean, Manausko Arena da Amazônian, non eta Amazoniako oihanetik hain gertu dagoen zelaian, Cristiano Ronaldok, urte hartan Urrezko Baloia irabazle suertatu zenak, gauza bera egin baitzuen berrogei mila ikusleren aurrean Portugalgo selekzioaren alde gola sartu ondoren. Kamiseta altxatu eta bere mezua agerian ipini zuen: «*Para ser grande, sê inteiro*». Fernando Pessoaaren heteronimo Ricardo Reisen hitzak, «handi izan nahi baduzu, izan zaitez osoa, izan zaitez betea», printzipio deklarazio bat ziren, dudarik gabe, Cristiano Ronaldo bezalako jokalaria pitzadurarik gabeko baten bularrean, Amazoniaren bihotzean:

«*Para ser grande, sê inteiro*». Bravo. Ospakizun literario hura ere ezin hobeto ekarrita zegoen jokora.

Ondoren gertatu zenari buruzko ezta-baida ez da egundo agortu, eta are gutxiago argitu, era eta gustu guztietarako teoriak baitaude horren gainean, konspiranoikoak eta konsparanoikoak barne. Zenbaiten ustez, Messi-Cortázar eta Ronaldo-Pessoaren leherketa mediatiko horren ondoren, kate-erreakzioa etorri zen, erabat espontaneo eta jokalarien gustu literarioetan oinarritua, soil-soilik. Teoria honen arabera, kanpo injerentziarik batere gabe atera zuen ekainaren 24an Natalgo Estadio das Dunasen Mario Balotellik Uruguaiiko selekzioaren kontra Dante Alighieriren «*Nel mezzo del cammin di nostra vita*» aipu ezaguna, bai eta San Petesburgoko Zeniteko jokalaria Aleksandr Kerzhakovek Dostoievskirena ere Aljeriaren kontrako norgehiagokan: «Po-

breziak eta miseriak ontzen dute artista». Bien bitartean, Messik —artista batek ezin geldirik egon— berean jarraitu zuen, eta Borges-en zita bat txisteratik atera, Sao Paulon Suitzaren kontrako final zortzirenetako *hat tricka* ospatzeko: «*Mi carne puede tener miedo; yo, no*».

Kontua ez zen hor amaitu, ordea. «Iraupen laburreko tirania da edertasuna» sokratikoa erakutsi zuen Georgios Samaras jokalaria greziarrak Italiaren kontrako Rio de Janeiroko partidari, eta jokalaria italiarrek iraintzat hartu zuten, euren edertasunari trufa egiten zuelakoan aipuak. Eskerrak gero hiru gol sartu zituzten, final zortzirenetara pasatuz, D'Annunzioren zita eta guzti: «*Vivere ardendo e non bruciarsi mai*». Sugar batean bizi, sekula ere erre gabe. Ez alferrik, aspaldi esana zuen idazle italiar handiak bizitza ez dela ametsa, jolasa baizik.

Deigarria bazen, behintzat, susmagarria ez esateagatik, denek ala denek euren literato

aberkideen hitzak aukeratu izana, eta inork jo ez izana ospakizun une hartan literatura unibertsaleko beste nazioetako egileetara... Txobinismoa ala norbere literatura nazionalarekiko maitasuna? Xehetasun hau izan zen, hain zuzen, bat baino gehiago literatur zitalzioen atzean zegoen jatorri ilunaz hitz egitera eramán zuena. Ez zela, alegia, hain askea eta libertarioa izan futbolitearen sorrera, ez eta hain inozentea ere literatur eztanda hori, baizik eta erabat interesatua: nazio-estatuen arteko aferak. Askoren ustez, argentinarren eta portugaldarren kolpearen ondoren, gainerako selekzioak derrigortuta sentitu ziren erantzutera, baina ez literaturazaletasunetik, euren sukar aberkoiaren arabera baizik, dema hura *Eurovisio literario* baten pare ulertuz. Entrenatzaile zein jokalariek premiazko bilerak egin behar izan zituzten euren herrialdeetako ordezkariekin, baita instantzia gorenetarainoko

kontsultak ere, herrialde bakoitzak ezagutarazi —saldu— nahi zuen idazlea hautatzeko orduan. Nor zen onena? Nor komenigarriena? Nor mamitsuena? Nor hunkigarriena? Nor politikoki zuzenena? Kirol sustapenerako sailek arduratu behar zuten erabakiaz ala Kultura Ministerioak zuzenean? Enpresa mundutik etorritako presiorik ere ez zen falta izango, eta talde editorial handiek ahaleginak eta bi egingo zituzten iragarki literario edo giza panel —literatur sandwich— bilakatu ziren aurrelariak euren autoreak lehenetsi zitzaten. Negozioa negozioa baita, finean. Izan zen, fede txarrez, Neymarrek nahita gol bat huts egin zuela esan zuenik ere, kamiseta pean zeukan Clarice Lispectorren aipua gustuko ez zuelako. «*Liberdade é pouco. O que eu desejo ainda não tem nome*». Askatasuna gutxiegi zela? Ez zeukala izenik berak desio zuenak? Lotsatu egiten ei zuen berak batere ulertzen

ez zuen ditxosozko aipu literario hura gogoz kontra erakutsi beharrak...

Ezkutuko tratu, jukutria eta sestra horiei buruz nahi adina espekula daiteke, baina gauza bakarra dago garbi: azkenean klasikoen eta egile eskubideak agortuta zituzten egileen alde jo zutela, oro har.

Irakurzaleak, edonola ere, pozarren zeuden. Inoiz ez bezala, Twitterren eta sare sozialetan pil-pilean ibili zen mundial haietan literatura. Modu politiko, sozial, ironiko zein aldarrikatzailean jokatzeari proposatzen zuten txioek (Quevedoren «*Poderoso caballero es Don Dinero*» iradoki zuen norbaitek Espainiako selekzioarentzat, eta baita abortuaren lege berriaren kontrako protesta zatekeen «*Con la iglesia hemos topado*», edota, Mariano José de Larrairen «*Vuelva usted mañana*» adierazgarria ere, langabezia eta krisia gogoan). Eskaera herrikoiei eta proposamen askotarikoekin batera,

beldurrak ere etorri ziren, jakina. Espainian, esate baterako, jokalaria euskaldun edo katalanek euren hizkuntza eta kultura aldarrikatzeko erabiliko ote zuten literatur demaren okasioa, edota, are kezkagarriagoa zenbaitentzat, erreibindikazio politiko independentistak egiteko. Cesc, Piqué eta Xabi Alonsoren kasuan, zelaira atera aurretik *garbi* ote zeuden jakiteko euren kamiseta peak arakatu zituzten zurrumurrua zabaldu zen Twitterren, gero jokalariek ohar bat kaleratu zuten arren hori gezurtatzeko. Zer den anabasa honetan guztian egia eta zer ez, auskalo. Baina ukaezina da piper eta gatz berezia izan zuela Brasilgo Mundialak. Ikusmin handia zegoen, adibidez, Alemaniak zer egingo zuen jakiteko, zein autore aipatuko ote zuten. Walter Benjamin? Heinrich Böll? Poesiaren alde egingo zuen, akaso? Bertolt Brechtekin ausartuko ote ziren? Askoren harri-durarako, ez zuten azkenik autore bat aipatu,

mugimendu oso bat baizik: *Sturm und Drang* ('Ekaitza eta haserrea'). Arrazoiarekin baino, Goetheren bidetik, sentimenduekin lotuago zegoen mugimendu artistikoa zen hura, eta, hasiera batean behintzat, nahasmena eragin zuen, ez baitzirudien *Sturm und Drang* filosofiak alemaniarren joko sistema zurrunarekin zerikusi handiegirik zuenik.

Brasil ez zen atzean geratu, jakina. Literatur tradizio sendoko herrialde golegilea izaki —eta gainera herrialde anfitrinoa— bata bestearen segidan atera zuen bere literatur munizioa: Américo de Almeida, Mário de Andrade, Bernardo Guimarães... Bereziki hunkigarria izan zen Paulinhok Italiaren kontrako final laurdenetan Carlos Drummond de Andraderen aipua ekarri zuenekoa: «*Amor é bicho instruído*».

Futbola. Literatura. Maitasuna. Zer gehiago eska geniezaiokeen munduko txapelketa bati?

Frantziak eta Espainiak hirugarren eta lau-
garren postua lortzeko lehian Brasilian jokatu
zuten partida ere ez zen txantxetakoa izan.
Griezmannek, areaz kanpotik zartada emanda
eskuadra zulatu zuenean, Gustave Flauberten
hitzak («*Madame Bovary, c'est moi*») haizatu zi-
tuen denon txundidurarako kamiseta pean, eta
Karim Benzemak Arthur Rimbaud ekarri iza-
nak ere hautsak harrotu zituen, «*Je suis un autre*»
esaldiak bere nortasun arrazial eta sexualari
buruzko zurrumurruak aireratu baitzituen.
«*Je suis un autre*», «Ni bestea naiz», zioen Ben-
zemak... Zer esan nahi zuen, ordea, horrekin?
Nor zen benetan Karim Benzema? Bisexual
bat? Identitate transnazionala aldarrikatzen
zuen? Suburbioko mutil bat, Rimbaud beza-
la? Madame Bovary izan gura zuen? Ala Halif,
bere aita zorrotzaren semea? Espainiaren
erreakzioaren ondoren etorri ziren komeriak,
Sergio Ramosen golaren ondotik —«*Carpe*

diem» latindarraren aldagai «*Carpe noctem*» aipua-
ren aldeko ezusteko hautua—, Senekaren
erran zaharra ekarri baitzuen Andrés Iniestak:
«*El que teme es un esclavo*». Beldur gutxi: pe-
naltiek ebatzi behar izan zuten azkenean lehia.
Lore-jokoen pare izan zen penalti sorta. Lau-
na jaurti zituen talde bakoitzak, zein baino
zein literarioagoak, Abidalen «*À la recherche
du temps perdu*» proustiarrarekin hasita. Dena
den, guztietan sofistikatuena, zalantza izpirik
gabe, Mathieu Valbuena jokalaria txikiak Lau-
tréamonti lapurtutakoa izan zen, ziurrenik,
arrats hartan: «*L'éléphant se laisse caresser. Le
pou, non*». Messik ere sina zezakeela esaldi
hura, ados egon ziren futbolite zaleak. Elefan-
tea laztan dezakezu, ez, ordea, arkakusoa.

Sergio Ramosek harmailetara igorri zuen
bere penaltia, eta akabo literatur festa. Agian
jada ez zeukalako *carpe noctem* haren ondotik
literatura gehiago kamisetaren pean, batek daki

zergatik itzali zen haren izarra. Frantziarentzat brontzea eta Espainia dominarik gabe etxera.

Literatur ziten borroka honetan, esan beharrik ere ez dago, atezainak ateratzen ziren beti galtzaile, nekez eta bakan sartzen baititu golak atezain sufrituak. Claudio Bravok, gehiago ezin eutsiz, bere atea utzi eta kontrako arearaino korner bat errematatzerara igotzea erabaki zuen Sao Paulon Holandaren kontrako partidari. Eta baita gola sartu ere. Pablo Nerudaren autobiografiako izenburua erakutsi zuen orduan txiletarrak, bularpean harro: «*Confieso que he vivido*».

Apustu etxeek euren dinamika aldatu behar izan zuten. Jada ez zieten soilik emaitzei erreparatzen... literatura unibertsaleko zein zita agertuko ote zen hurrena, hori saritzen zen batez ere apustuaren baitan. Diru gehiago irabazten zuen, izatez, hurrena aipatua izango zen idazlea asmatzen zuenak, partidaren emai-

tza asmatzen zuenak baino.

Izarra, amaierara arte, Lionel Messi izango zen, ordea, 2014ko hartan. Italiaren kontrako finalean lau gol sartu zituenean Cortázarren *Instrucciones para llorar* osoa eman zuen, lerrorik lerro, Argentinako koloreen azpian zituen beste hainbat kamiseten bidez ipuinaren sei esaldiak osatzeraino. Bularraldean ez ezik, kamisetaren bizkarrean ere idatzita zeramatzan ipuinaren zatiak. Negar batean geratu zirenak italiarrak izan ziren, noski, garaipenaren bidean, *nel mezzo del cammin*, ataka hura gainditu ezinik.

Mundialetako aparraldiaren ondoren, katedratiko postkolonialistak kexu agertu ziren, literaturaren kontzepzio zaharkitua eta apur bat atzerakoia nagusitu omen zelako Munduko Futbol Txapelketan: idazle gehienak gizonezkoak ziren, mendebaldeko kanon klasikoari atxikiegiak eta zuriak. FIFArri hurrengo mundialetarako derrigorrezko kuota bat es-

katzeko sinadura bilketari ekin zioten hainbat unibertsitate ezkertiarretan. Ez zen, ordea, horeen premiarik izango, tamalez.

Berandu, baina iritsi zen gugana ere eromena. Realaren eta Athleticen arteko lehen derbian, 2014ko udazkenean, Gurpegiren bolea loratuak sarea zulatu zuenean, Lauaxetaren hitz zorrotzak agertu ziren haren kamiseta pean: «Dana emon biar yako». Realak, bere aldetik, Txirritak Pello Errotari bertsotan emandako erantzuna ekarri zuen Xabi Prietoren elastiko estuaren pean, norgehiagokari umore printza bat eman eta herri tradizioak futbolitean bere lekutxoak izan zezakeela frogatuz: «Bi alkandorra ekarri ditut, bat erantztea ahaztuta». Bana bukatu zen derbia.

Zenbait hilabetetan futbolaren eta literaturaren arteko aliantzak gera ezina zirudien. *Win win* tratu horietako bat. On den orok omen du, ordea, bere akabua, eta urrezko aro hau

2015eko apirilaren 23an amaitu zen, Medelingo Atanasio Girardot estadioan Expreso Rojo taldeko Junot Campari jokalaria, takoiz gola sartu ondoren, mira teleskopikodun eskopeta batez tirokatua izan zen egunean. Liburu Eguna zen, Shakespeare eta Cervantesen urteurren seinalatua.

Hogei minutu luzez erreanimatze saiakera egin zioten Junot Campariri osasun zerbitzu ibiltariko boluntarioek. Ez zuen funtzionatu. Odolez gorritua amaitu zuen jendaurrean erakutsi berri zuen zita hunkigarriak. Aro bati amaiera eman zion azken zitak. Marguerite Durasen esaldi biribil bat zeukan bere kamisetan —behingoz berea ez zen herrialde bateko idazle bat, eta emakumezkoa—: «Goizegi izan zen berandu nire bizitzan».

Saiatu ziren literaturak gertaera lazgarri harekin zerikusirik izan ez zuela defendatzen. Paulinho erdilari brasildarra falta izan zen, be-

harbada, Carlos Drummond de Andrade berriz aipatzeko. Hark esan bezala, hildakoak azkar igarotzen baitira; ez dago hildakoak ukitzerik, bat agurtu orduko beste batek bereganatzen du zure arreta.

Egun hartatik aurrera debekatu egin zituzten literatur zitak futbol zelaietan, Kolonbian eta munduko beste estadio guztietan.

Geroztik, bereizi egin ziren haien bideak, eta literatura eta futbola, nor bere aldetik doaz.



*Harkaitz Cano 1975ean jaio zen Lasarte-Orian.
Nobela (Beluna jazz, Pasaia blues, Belarraren ahoa),
ipuinak (Neguko zirkua) eta saioa (Zinea eta literatura:
begiaren ajeak) landu ditu, besteak beste. Twist
eleberriarekin, Kritikaren Saria, Beterriko Liburua eta
Euskadi Saria irabazi zituen 2012an. Komiki zein
telebistarako gidoiak idatzi ohi ditu eta musikari
eta artista askorekin kolaboratu izan du. Zazpi
hizkuntzetara itzuliak izan dira bere
liburuak. (www.harkaitzcano.com)*

LETRAK
&
FUTBOLA

L E T R A S & F Ú T B O L